

## EUSKAL HERRIAN ZEHAR HARRIBITXI BILA

### AURKEZPENA

Ez natorkizu, irakurle, aintzina, hemendik eta handik Ameriketara nahiz beste edonora *urre zein harribitxi* bila joaten zirenen antzerako ezeren berri ematera. Horixe baino ez genuen behar gure Herri honetan, kanpotarrik gehiago etortzeko!

Nik hemen aipatu nahi ditudan *harribitxiok* beste mota batetakoak dituzu. Gure ingurumarian izanarren, sarritan ikusi ere egiten ez ditugunak, hain zuzen. Gure hizkuntzak, gure euskarak, historian zehar, urak joan urak etorri, altzoan bildu dituenak.

Azken urte hauetan, geroago eta ugariago gara Euskal Herrian zehar, gure euskararen geroaz zeharo kezkatuak. Ilun ikusten dugu, ikusi ere, geroa. Eta hori, ez bakarrik erdara bazter guztietan nagusiturik ikusten dugulako, gure hizkuntzaren iturburu agortezin izan ditugun euskaldun elebakarrak desagertu jakuzalako ere bai. Hizkuntzak ezin omen du iraun elebakarrik gabe! Gorria, benetan gure geroa!

Eta badakizu, elebakar horiek, bizitza osoa euskara hutsean bizi izan duten horiek, zer erakutsi ugari dute. Heurok ez dute erdararen preminarik izan bizimodu osoa egiteko (Guretzat, gazteleraren mende bizi garenontzat, amets gozo hutsa, behar bada). Elebakar hauek nahiko izan dute euskara, bizitzako beharrian guztietarako: bai salerosketarako, bai sendimenduak adi-

tzera emateko, bai pentsamoldeak aberasteko..., edozetarako.

Sarritan, halakoren batekin elkarrisketarik edo harremanik edukitzeko aukera izan dugunok, harriturik zein txunditurik geratu izan gara, zer nolako erraztasunez eta jariotasunez erabiltzen duten denetarako euskara ikusterakoan. Horiek, liburuei hautsak astintzen ibiltzen garenoi benetako iturburu garbietara jotzeko egarri bizia sortu izan digute, gehienetan.

Halakoak, gainera, heuren bizitza osoan euskara baino beste hizkuntzarik erabili ez dutenez, gure Herriaren historia bizi bihurtu zaizkigu, mendez mende hizkuntzak bildu dituen aberastasun guztien altxor garbi diren adinean.

Hori dela eta, ezinbestekotzat jo izan dut behin baino gehiagotan, aldizkari honetan euskarari eskeinitako orrietan, herri-mintzara grabatu eta jaso beharra. Euskara moderno standarra egiten ari garen garai honetan, aparteko esanahia hartzen du bilketa egite honek. Bestalde, denok dakigunez, iturbururik garbienak eta aberatsenak diren gure atsotxo eta aguratxoak, bizi-tzak hala beharturik, hiltera oazkigu.

Horregaitik, oraingo honetan, arazo hau plazaratu nahi izan dut, laburki baldin bada ere, KARMEL hartzen duzuenok ere beste hainbeste egitera bultzatu nahirik. Gaurkoan, uda honetan, ustekabean, Aramaion jaiotako emakume bategandik jasotako zenbait hizkuntz-bitxikeria eskaini nahi dizuet. Lantxo hau, edonork, bere inguruan egin dezakenaren agergarri bat baino ez duzue, bada.

Badakit, bestalde, gaur egun jenderik ugari dabilela gure euskararen altxor bizi horien aztarnak biltzen, Azkue maisu gailenezinari jarraiki. Aramaion bertan ere hiru gazte izan ditugu aurtengo Abuztu osoan zehar bertako kantu zahar, ipuin eta pasadizoak («Azerikonak eta Otsokonak») jasoten.

Gorago esan den bezala, bada, arratsalde euritsu batetan, Aramaioko alaba baten ahotik (M.<sup>a</sup> Carmen Arrizabalaga, Aixo-

lako Patxixenean jaioa) eskuz jasotako zenbait bitxikeria eskaintzen dizuet. Geroago, zehatzago eta ugariago Magnetofoid jasotzekotan geratu ginen, testu gehienok abestekoak dira eta.

### Textu-banaketa

Bildutako testuak gai eta izaera desberdinetakoak izanik, egoki banaturik aurkezteko, sailkatuz eskeintzen dizkizuet, horrela antzerako bilketarik egin nahi duen edonork nola jokatu izan dezan, ezinbestekoa baita irakurketa hariari jarraitzeko zereendaketa argia egitea.

Hemen dituzu, bada, bestelakorik gabe idazkera errazez aurkeztuak (Egokiena edo zehatzena idazkera fonetiko eskaintzea litzateke, baina hori grabaketa bidez biltzerakoan egiteko utziko dut) ulergarriago aditzera emateko asmotan.

A) **Umeen jokoak:** Hiru joko eskaintzen dizkizut. Nahiko ezagunak dira. Hala ere, behar bada, jokoetan erabiltzen diren letrak, desberdinak.

1). Burdiaren haga puntan larakoari helduta norbait jarri eta besteek atzekaldetik indar eginez gora-beheraka eragitean:

«Txurumurru maiñe (Aixelan)	«Txuntxurrutxun maiñe (Altzan)
nun da aittejaune;	nun da aittejaune
artaletxuek batzen	basuen
artaletxuek setako	setan
oillotxuendako	sotzak batzen
oillotxue setako	sotzak setako
arrautxatxuek eitteko	sue itteko
arrautxatxuek setako	sue setako
abariendako	olatie erretako
abarie setako	olatie setako
mesie emuteko	abariendako
mesie setako	abarie setako
aiñgerutxu bixen erdixen	mesie emuteko
serure jueteko.	mesie setako
	aiñgerutxu bixen erdixen
	serure jueteko.

«Txuntxurruntxun maiñe  
bixer Santamañe  
etzi Domu Santu  
umie suluen sartu.  
Ama negarres  
aitte dolores  
abarie kantuen  
pesetien (errielen) poses.

2) Eskuak txandaka ukituz egiten den jokoan erabilia. Gaur egun, zenbait lekutan, karten bidez egiten da halako joko bat, karta banatzaileak «*txanka urre*» agertzen denean ikutzen duena zigortuz.

«Atxie mutxie piruli pan (Aixelan)	«Atxie mutxie piruli pan (Altzan)
nere semie errotan	ñire semie errotan.
errota txikiñe klin klan	errota txikixe klin klan
botikario kalendario	beñ juen nintzen basora
beñ joan nintzen basora	topau neban erbi bat
egurretan	jaurti nutzen arri bat
topau neuan astotxo bat	atera nutzen
lokozetan	eskerreko begi gorri, gorri,,
tireka nabilela	gorria.
ata nuntzen bustena	Txist ala Matarro.
artu nuntzen istena	
atera nuntzen eskerreko	
begi gorri, gorri, gorri,, gorria	
<i>Pipi</i> ala <i>Kosk</i> .	

*Oharra:* *Txist* edo *Pipi*, esku ganean txatxamurkada bat ematea zan eta *Kosk* edo *Matarro* bekokian hatzamar birekin kolpea.

3) Ezkututako jokoak. Pote bat plaza erdian edo bide erdian jarri eta alde zaurretik ezkututako norbait ikusten zenean esaten zen, ikusi zela dierazteko.

«Pote, pote, pote  
txakur txokolate  
Arabako baltza  
.....(izena) ipurbaltza.

B) *Burla edo iseka kantuak*. Bèhiak zaintzen ziharduen artean, egonaldi luze nekagarrieci atsegina eskaini nahiez edo baserri desberdinetako neskato-mutikoek landarik landa elkarri kante-takoak:

1) Oso esaguna. Beste toki askotan ere erabilia:

«Or goiko landetan  
eperra kantetan  
.....ko .....(izena)  
kaka praketan.

2) Nahiko letra ezezaguna du:

«Or goixen iturri  
ure pիրpir etorri  
olaberako .....(izena)  
laba bete ipurdi  
laban kabidu ezinde  
laba ostea itzuli  
laba osteko arratoiek  
ipurditik asi.

3) Azkuek ere antzerakoa dakar.

«Libiri ta labore  
non da ganau saiñe  
Or beko estrada suluen  
kaka ein ezinke.

C) *Zenbatzen irakastekoak*. Zer esanik ez, hauek zenbatzen irakasteko eginak dira. Behar bada, aldaketaxoren bat emanda, gaur egun ere baliagarri bihur daitezke.

1) Erdaraz zenbatzen irakastekoa

«Una, dos, tres y cuatro  
Santanako subipeien  
bost txorikumatxo  
amas ta aittas siete  
afixias ocho  
Martíña potxotxo.



2) Euskaraz zenbatzen irakastekoa. Bizkaiaren ere badira antzerakoak.

«Bat, Matxin parrat  
Bi, Matxin ipurdi  
Hiru, kolkua bete diru  
Lau, sardiña bakalau  
Bost, daukenak emongost  
Sei, eztaukenak esin lei  
Saspi, Mari saski  
Sortzi, Mari sortzi  
Bederatzi, katuek errapie eretsi  
Amar, lapikue bete xamar  
Amaike, atzue eta agurie jarraike  
Amabi, gure astuek bustenien kana bi  
Amairu,... (Eztok amairu???)

3) Umetxoei hatzamarrak bereizten irakastekoa. (Txikitatik hasita)

- 1) «Honek arrautxatxo bat ekarri
- 2) «Honek ipiñi
- 3) «Honek gatza bota
- 4) «Honek probau
- 5) Pottolotxo honek dana jan (hatzamar handia)

D) Bestelako batzu:

1) *Esaera zaharra* (Atsoek esaten omen zuten). Seme-alabei buruzkoa.

«Lelengokue, <i>Alelix</i> (Aixelan)	«Lelengokue, <i>Liliritte</i> (Altzan)
Bigarrena, <i>Margarixe</i>	Bigarrena, <i>Margaritte</i>
Hirugarrena, <i>Sobrarixe</i>	Hirugarrena, <i>Sobraritte</i>

2) *Bertso-esaera*. Antzerakorik bada Bizkaian

«Din dan  
nor ill da  
Peru sapatarixe  
ser egin du, pekatu

Aldeko txakurre urketu  
ori baiño geixau in ezbadau  
biarko jakola parkatu.

- 3) *Bertsoa*. Zentzu sakonez betea.  
«Salto ta brinko zenbiltzan  
kuarto barrenien  
ikusi zenduelako  
kaka oraiñelien.  
Nais aberatza isan  
ta nais pobree  
kaka eññ biarko dau  
egoteko libre.

### **Halako bilketen garrantzia**

Norbaitek galdetuko du, behar bada, ea honelako bitxike-riak biltzen ibiltzeak ezertarako balio duen edo eta halakoetan astia erdi-alperrik galdu gabe ez ote den hobe ahaleginak beste-lako preminazko alorretan jartzea.

Zer esanik ez, euskaldunok, gaur egun, premia larriak eta estuak ditugu esku artean eta, aldian aldian, hor eta hemen, jo eta ke lan egin behar gorria. Hala ere, nahiz eta gure ardurarik bizienak euskararen geroa ziurtatzen jarri, nik neuk oso interes-garriztat jotzen ditut honelako bilketak, zein gure Herriaren pentsamoldeetako muina adierazten digutelako, zein euskararen historia barruko atal fosilatuak ditugulako. Aintzinako euskara-ren egoerara hurbiltzeko bide bihurtzen zaizkigu.

Azaleko azterketa labur batetara jo baino ez daukagu, begi-rada batetan hemen diogunaz jabetzeko. Begira, bestela, zertzuk atera ditzakegun aurreko textutxo horietatik:

- a) *Euskal Herriko Lurralde desberdinetako harreman estuen berriak*. Hemen jaso ditugu bertso, kantu eta esakera gehientsuak ezagu-nak ditugu beste hainbat lekutan ere, aldaketa txikiren bat tarte-

ko dutela. Hòrrek herri desberdinen arteko lotura estua ematen digu aditzera. Nire lekukoak esan zidanez, bere aitak (Aixelako Carlos Arrizabalak) osorik kantatzen omen zituen «Markesaren Alabaren bertsoak»!

b) *Herriaren pentsamolde-ezaugarriak*. Besterik beste hiru ikuspuntu aipagarri jaso ditzakegu:

1) Apaizaren lana eta eginkizuna ontzat jotzen baldin badira ere, kritikatu egiten da heuron dirusaletasuna. (Abarie kantuen pesetien (errielen) poses»).

2) Garai hartan baserri gehienetan seme-alaba ugari izaten baldin bazituzten ere, erdi brometan, horretaz zer nolako eretzia zuten emakumeek, ematen digute aditzera: lehena, oso pozik, bigarrena, normalki eta hirugarrena gehigarriztat hartzen zirela esanez. (Lelengokue, Alelix; bigarrena, Margarixe; Hirugarrena, Sobrarixe»).

3) bertan jaso dugun bertsoa ere, esanahiz betea dugu, gizonon oinarrizko berdintasuna aldarrizkatzen baitu. Bertsolariak, berdintzat jotzen ditu bai aberatsa zein pobrea bizitzako gauzarik arruntenean. («Nais aberatza, ta nais pobree, kaka eiñ biarko du egoteko libre»).

c) *Hizkuntza alorreko zenbait jakingarri*. Alor hau dugu, guretzat garrantzitsuena eta euskararentzat onuragarriena. Halako testuek, laburrak izan arren, herriak nola erabiltzen duen euskara eguneroko bizitzan ematen ditute aditzera. Lehenaren aztarna ditugunez, gainera, euskararen aintzinako izaera ezagutzeko argibide ere baditugu. Hona hemen alor honetako jakingarri batzu:

1) *Fonetika alorrean*, jarraikoak azpimarra ditzakegu:

*Bokaletan:*

/oa/=ue/: Artaletxuek, oillotxue, arrautxatxuek, jueteko, ba-



suen, juen, lapikue, atzue, astuek.

/ea/=ie/: Olatie, umie, semie, errapie, agurie, bustenien, barrenien.

/aa/=ie/: Pesetien, mesie.

/ia/=ixe/: Bixen, erdixen, bixer, goixen, sapatarixe, alelixé,...

/ua/=ue/: sue, katuek.

/a/=e/ Hitzen bukaeran: aittejaune, serure, txikiñe, ezinde, jarraike, txakurre, nintzen.

o/=u/: Nun, emuteko.

#### *Kontsonanteetan:*

/d/=r/: Abarie, abariendako.

/b/=f/: Afixie.

/z/=s/: Setako, aittas eta amas, mesie, serure, setan, sozak, eskerreko...

/ts/=tz/: Atzue (atxoa), eretzi (eratsi).

/n/=o/: Edo galketa: nutzen.

/g/=o/: Bokal artean: eitteko, itteko, ein, geixau, eiñ.

/r/=o/: Bokal artean: ata, ostea, setako, errielen, pesetien (=atara, ostera, setarako, errielaeren, pesetiaren).

*Zenbait bustidura:* Aittejaune, oillotxue, arrautxatxuek, eitteko, aiñgerutxu, aitte...

#### 2) *Morfoxintasia alorrean:*

-Aditz aldien arteko nahasketa: «Topau neban astotxo bat lokotzetan, tireka *nabilela* ata nuntzen bustena).

-Aditzera bikoiztuak: neuan/neban; nutzen/nuntzen; nintzan/nintzen.

-Aditzera laburtuak: emongost (emongo deust)

-Deklinabideko destinatiboan bizigabeen atzizkia bizidunarentzat: («abariendako»)

#### 3) *Lexikoan:* Alor honetan ere jakingarri ugari aurkitzen di-

tugu. Aramaioko azpieuskalkiaren nundik norakoak aurki ditza-kegu. Ondokoak dira aipagarrienak:

1) *Aittejaune* (aitteitte, aittona). Aramaion gaur egunez ere aitaren aitari deitzeko «*aittejaune*» erabiltzen da, Goi-nafarreraz bezala.

2) *Artaletxue* (arto-aletxoa): Azkuen hiztegian agertzen ez den hitza.

3) *Topau* (aurkitu), Bizkaian erabili ohi den bezela.

4) *Itzuli* (irauli). Gaur egun Aramaion, *itzuli* irauli zentzuan bakarrik erabiltzen da. Nolabait fosildurik geratu da: *burdia itzuli* eta honelakoetarako bakarrik.

5) *Eretsi* aditzak ere berezko esanahia galdu egindu. Gaur egunez ez da kasu konkretu batetan baino erabiltzen, hain zuzen, txala egiteko (edo umea egiteko) dan abereak azken egune-tan errapea betetzeari deitzeko: *behiak errapie eretsi dau*. Abereari eskuz nahiz tresnaz esnea ateratzeari: *batu* deitzen zaio: *ardiak batu* (desberdina da *ardiak pilatu*).

6) *Olatie*: eleizara oparitzat eramaten zen opiltxoa.

7) *Kana*: lehenago erabiltzen zen neurtzeko gailua.

8) *Aldeko*: auzoko.

9) *Afixie*: habia.

Ikus daitekenez, halako textuak biltzea beharrezkoa dugu herri hizkerak aztertzeko eta horrela euskara sakonagotik ezagu-tu ahak izateko.

*Eranskina:*

Aurreko lerroak idazterakoan, direla urte pare bat Orozko-

ko baserri batetako gaztelerazko esku-eskribu batetan aurkitu eta jasotako euskarazko otoitz batzu etorri zaizkit gogora.

Oraingo honetan textuok aztertzeke astirik eta lekurik izan ezarren, jakingarritzat jo dut, hemen zuei eskaintzea, direla hiru mende inguru idatziak dira eta.

Hain zuzen ere, garai hartan (1698) Kapilau batek herriarengandik jaso eta idatziak dituzu. Direla hiru mende, nik orain Aramaion egin dudanaren antzeko zerbait egin zuen gizonaren testigu. Zoritxarrez, gaztelerazko textua mardula izan arren, ez zuen beste ezer jaso euskaraz:

Hona hemen bada, textu zahar horiek:

«Agur Regina, eta Ama Misericordiecoa(scoa), vizicatta(?)  
dulzurea, gueure esperanza, Agur. Zeuri guey eguiten  
dogu Hevaen hume desterraduoc zeugan suspireetan dogu  
geminettan, da, erosteettan, negarrezco Valle onettan.  
Alaan gueure Abogadea ixuli eguizus geuengananch  
orreec zure Vegui gusttiz misericordiosooc eta zeure sabe-  
leco Jesus fruto vedeinquetua eracusi eguiguzu destierruo-  
nen acaberan.

Ô; ama gusttis biguna. Ô; Piadosa erruquiurra. Ô; Gozo  
Virgen Maria. gugatic erregu eguizu Jeiñcoen Ama santea  
icen gaitezanzat digno Jesuchristos gueure Jaueneen  
aguinze guztiz andieen.

Amen Jesus gueure Jauna.

nogaz acabeettan dogun ceure ama virgineen Agurera  
gozo Mayttea. (45 bis orr.)

«Ene Jaun Jesuchristo saluetan doguz da adarau zeure  
oyñetaco, escuetaco, bularreco eta osterancheco llaga, ala-  
zaquin, golpe eta afruenta(...?)k; artu zenguizenac gure  
amodioz; emayten drozuguz(diozuguz?) graciac, Iregaco  
zenguizelaco gu salveetarren; Esqueetan deusungo(?) parca-  
tu daguizela gueure pecatu, biurtu daguizuzela infielac eta

peccatariec zeure elexa Santura eta zeure graciera, alivie gaguizuzela eureen eureen peneetarie Purgatorioco Ari-maac. Eminenten doguz gueure gauce guztiec ceure Ma-gueetan eta vihoza amorosotzan(amorosotian?). (47 orr.)

«Agur Maria Jaungoyco Ayteen alabea. Agur Maria Jaungoyco Semeen Amea; Agur Maria Jaungoyco Espiritu Santuen esposea. Agur Maria Santissima Triñitateen tem-plo eta Sagrarioa. Agur Maria, peccatu origineleen man-chabagaric concebidea. Amen Jesus, Maria y Joseph. (47 orr.)

«Bedeynguetu, eta alabadu izan bide Santissimo Sacra-mentu Altaraco eta Virgine Maria, peccatu Originelen manchagabaric concebidea. Amen Jesus, Maria y Joseph. (47 bis orr.)

«Gloria Aytteari, tta Semeari  
ta Espiritu Santuari  
leelengoan zanaleguez  
orain, eta baitte vetti  
sigluettaco sigluettan  
viz(?) Jaungoico bacarbat

«Maria Ama graciouscoa (ecoa?)  
Ama Misericordiscoa (ecoa?)  
zeuc arerioanic jacon gaguizuz  
eta, eta eriozaco horduen  
zeugan artu gaguizuz.

Gloria Aytteari eta  
Semeay(ori?) eta  
Espiritu Santueri/ Resp.  
Leelengoac zanaleguez  
orayn eta bayte beti  
sigluetaco siguetan(sic).  
Amen Jesus.

«Jesus, Joseph, ta Maria  
San Joaquin, ta santta Ana  
gueure Angueru Jagolea,  
ta San Miguel generala  
ceure escuetan imintten dogu  
gueure gorpuz ta arimea.

(45 bis orr.)

Fundacion de Capellania que otuvo Domingo de Acha Anguelua, Vecino del Valle, Orozco, febrero de 1691. (Inork berri zehatzagorik jaso nahi badu, dei beza hurrengo telefonora: 661 0069).

Patxi Uribarren